

3/16

irizpena

Euskadin Enplegurako Lanbide Heziketa
antolatzen duen

Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2016ko apirilaren 22an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I.- AURREKARIAK

2016ko martxoaren 22an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordean Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailaren idazkia sartu zen eta *“Euskadin Enplegurako Lanbide Heziketa antolatzen duen Dekretu Proiektuari”* buruzko txostena eskatzen zuen, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lehenengo artikuluan xedatutakoarekin bat, Dekretuaren helburua honakoa da: *“Euskal Autonomia Erkidegoan enplegurako lanbide heziketa antolatzea eta, horren haritik, helburuak eta printzipioak, plangintzaren, programazioaren, kudeaketaren eta irakastearen fase desberdinak, egiturazko elementuak eta ekimen ezberdinak zehaztea, baita prestakuntza-jardueraren ebaluazio, jarraipen eta kontrolari buruzko alderdiak definitzea ere”*.

Berehala dokumentuaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzairen, beren proposamenak eta iritziak bidaltzeko eta horiek Lan Batzorde egokiari jakinarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudiak xedatutakoaren babesean. Gizarte Garapeneko Batzordea 2016ko apirilaren 6an eta 7an bildu zen eta hartutako erabakietatik abiatuta, Irizpen Proiektu hau egin du Batzordearen Osoko Bilkurak apirilaren 22an azter dezan. Han aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

Euskadin Enplegurako Lanbide Heziketa antolatzen duen Dekretuaren Proiektuak zioen azalpena, 42 artikulua, xedapen gehigarri bat, indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu. Artikuluak zazpi kapitulutuan multzokatuak daude eta batzuk ataletan banatzen dira hurrengo moduan:

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazioaren eremua
2. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren kontzeptua, helburuak eta printzipioak
3. artikulua. Definizioak
4. artikulua. Pertsona hartzaileak eta lehentasunezko taldeak

5. artikulua. Prestakuntza-ekintzak

6. artikulua. Prestakuntza irakasteko modalitateak

7. artikulua. Prestakuntza ekintzen finantzaketa eta modulu ekonomikoak

II. KAPITULUA. Sistemaren gobernamentua: enplegurako heziketaren plangintza, kudeaketa eta partaidetzarako organoak

8. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren plangintza eta ebaluazioa

9. artikulua. Euskadin enplegurako lanbide heziketaren erakunde kudeatzailea

10. artikulua. Enplegurako Lanbide Heziketaren Aholkularitza Batzordea

III. KAPITULUA. Sistema egituratzeko elementuak

1. atala. Heziketaren espezialitateak.

11. artikulua. Heziketari buruzko Espezialitateen Euskal Katalogoa

12. artikulua. Profesionaltasunaren ziurtagiriak

2. atala. Prestakuntza irakastea. Heziketa-erakundeak erregistratzea.

13. artikulua. Prestakuntza irakastea

14. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren erakundeei buruzko euskal erregistroa

3. atala. Enplegurako lanbide heziketaren diagnostikoa eta plangintza

15. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren eremuan diagnostikoa

16. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren jarduerak planifikatzea

4. atala. Gaitasun eta lan esperientziaren egiaztapenari buruzko euskal erregistroa

17. artikulua. Gaitasunari buruzko euskal erregistroa

18. artikulua. Lan-esperientzia eta legezkoak ez diren ikasketak onartzeko prozedura

5. atala. Enplegurako lanbide heziketaren informazio-sistema

19. artikulua. Informazio-sistema

20. artikulua. Lanbidearen informazio-sistemaren elementuak

IV. KAPITULUA. Enplegurako heziketaren ekimenak

1. atala. Enpresek programatutako heziketa.

21. artikulua. Enpresek programatutako heziketa

2. atala. Prestakuntzaren eskaintza

22. artikulua. Prestakuntzaren eskaintza

1. azpiatala. Langile langabetuentzat prestakuntzaren eskaintza

23. artikulua. Langile langabetuentzat prestakuntzaren eskaintza

24. artikulua. Lanekoak ez diren praktikak.

2. azpiatala. Langile okupatuentzat prestakuntzaren eskaintza

25. artikulua. Langile okupatuentzat prestakuntzaren eskaintza

3. azpiatala. Programa bereziak eta gizarteratu nahiz lan-merkatuan sartzeko proiektuak

26. artikulua. Programa bereziak eta gizarteratu nahiz lan-merkatuan sartzeko proiektuak

3. atala. Heziketa enpleguarekin txandakatuz

27. artikulua. Xedea.

29. artikulua. Prestakuntza eta ikasteko kontratuari lotutako heziketa duala.

30. artikulua. Enpleguarekin txandakatuz bestelako heziketaren programak

V. KAPITULUA. Heziketa eta nazioz gaindiko mugikortasunerako laguntza ekintzak

1. atala. Heziketarako laguntza ekintzak

30. artikulua. Xedea

31. artikulua. Helburuak

32. artikulua. Tipologia

33. artikulua. Gauzatzeko bitartekoak

2. atala. Nazioz gaindiko proiektuak

34. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren arloan nazioz gaindiko mugikortasuna duten proiektuak

VI. KAPITULUA. Heziketa-erakundeen sarea.

35. artikulua. Prestakuntza Erakundeei buruzko Euskal Sarearen definizioa eta helburuak

36. artikulua. Sareko heziketa-erakundeen baldintzak

VII. KAPITULUA. Enplegurako lanbide heziketa kudeatzeari lotutako prozesuak

37. artikulua. Ikasketa ebaluatzea

38. artikulua. Profesionaltasun-ziurtagiriekin zerikusia duen heziketa ebaluatzea

39. artikulua. Heziketa egiaztatzea

40. artikulua. Heziketaren kalitatea

41. artikulua. Enplegurako lanbide heziketa ebaluatzea

42. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren jarraipena, kontrola eta zigor-araubidea

Zioen azalpenak adierazitakoaren arabera, Enplegurako Lanbide Heziketa (ELH) lanaren antolamendu juridikoan tradizio handienetarikoa duen politika publiko bat da eta pertsonaren bizian ikaste oinarri nagusienetakoa ere bai.

ELHaren ekintzak enplegarritasuna sendotzeko langileei eskain dakiekeen zerbitzu nagusi bezala pentsatuak daude. Ekintza horiek lanbide zehatza garatzeko beharrezkoak diren gaitasun profesionalak hornitzen dute. Ildo horri eutsiz, arlo profesional zehatza ezagutzen eta sektore nahiz jarduera ekonomiko multzoari aplikatzen zaizkien zeharkako gaitasunak lortzen eragiten dute. Hala, ELH, multzoan hartuta, Enplegu Politika Aktiboen (EPA) tresnarik osoena da.

Estatuko 30/2015 Legeak, irailaren 9koak, lanaren eremuan Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duenak, Autonomia Estatutuak, lanaren, enpleguaren eta ELHaren eremuan funtzioak eta zerbitzuak Autonomia Erkidegoari transferitzeko Batzorde Mistoaren Hitzarmenak, azaroaren 5eko 1441/2010 EDaren bidez onartutakoak, eta Kontzertu Ekonomikoak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutakoak, xedatutakoaren ondorioz arloan Euskal Autonomia Erkidegoaren berezitasuna onartzen du, beraz, hamabigarren xedapen gehigarriari jarraiki, araua Euskal Autonomia Erkidegoan arau-esparru horretan xedatutakoarekin bat aplikatuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan enplegurako heziketak ibilbide luze eta nabarmena du. Euskal Administrazioak ahalegin inbertitzaile garrantzitsua egin du, bai langabetuen prestakuntza hobetzeari begira, bai pertsona okupatuen gaitasunak hobetzeko.

EPAak transferitzearen ondorioz, Euskal Enplegu Zerbitzua - LANBIDE, Eusko Jaurlaritzako enplegu-politikaren organo kudeatzailea, eratu zen eta honako helburu bereziak ditu: enpleguaren eta prestakuntza profesionalaren arloan gaitasunak erabiltzea eta, bereziki, enplegurako prestakuntza eta orientabide nahiz informazio profesionala eskaintzea. 2011ko urtarrilaren 1etik enplegurako lanbide heziketaren jarduerak eta programak garatzen ditu eta, horretarako, deialdi desberdinak burutzen ditu pertsona langabetu eta okupatuentzat.

Aurreko esperientzien ondorioz eta arau- nahiz eskumen-errealitate berriari moldatzeko antolaketa-formula bezala, Dekretu honen bidez EAEn ELHa osoaren kudeaketa eta programazioa antolaketa-egitura bakarrean integratzea aukeratu da eta, xede horrez, hiru aldean arteko organoetan garatu den lankidetzaren esperientzia aprobetxatzen da. Horietan gizarte-eragile eta enpresa- nahiz sindikatu-erakunde esangarrienen ezagutza eta produkzio-sarean ezarpen nabarmena egiaztatu da. Izan ere, esparrua erabakigarria da enpleguaren politika aktiboen helburu nagusiak lortzeko.

Dekretu honek aurreko esperientziak jasotzen ditu eta egungo indarreko araudiaren esparruan kudeaketa-eredu berria sortzen du, hain zuzen ere, gure lurraldean garatzen den ELHaren jarduera multzoa sistema bakarrean integratzen duena. Helburua pertsona langileei, okupatu eta langabetuei, lan-merkatuaren beharrei moldatutako prestakuntza eskaintzea da, enpresen lehiakortasunari buruzko eskeak kontuan hartuta. Era berean, prestakuntzak pertsonen sustapen profesionalaren eta garapen pertsonalaren nahiak ase beharko ditu.

Ildo horri eutsiz, Dekretu honek, kalitatearen, eraginkortasunaren eta efizientziaren irizpideetan oinarritutako ELHaren antolamenduaren bitartez, sistemaren gobernamentuan gizarte-eragileen partaidetzarekin eta heziketa-erakundeen laguntzaz, lehiakortasunaren oinarritzko faktore bezala giza kapitala prestatzen eta ekonomia iraunkorra nahiz enplegu sortzailea garatzen lagunduko du.

III.- GOGOETA OROKORRAK

I. Balioztapen orokorra

Guk iritzia emateko, “*Euskadin Enplegurako Lanbide Heziketa agintzen duen Dekretuaren Proiektua*” aurkeztu zaigu. Euskal Autonomia Erkidegoak duen aginpidea gauzatzeko eta Enpleguaren Politika Aktiboei buruzko zerbitzuak eta funtzioak transferitu ondoren idatzi da, Euskal Autonomia Erkidegoan langabetuentzat eta okupatuentzat enplegurako lanbide heziketaren esparru orokor arautzailea zehazteko xedez. Nolanahi ere, aginpidea gauzatzeko alderdi nagusi guztiak izango ditu eta Estatuan arloan indarrean dagoen araudiarekin bat arautu dira, gure antolaketaren eta gizarte- nahiz lan-errealitateari moldatu ondoren. Hala, ekimena positiboki balioztatzen dugu.

Enplegurako Lanbide Heziketari buruzko eredu berriaren antolaketak izan behar dituen oinarriak arau batean jasotzeko Gobernuaren ahalegina balioztatzen dugu, are gehiago, garapenaren zain edo izapidetze-fasean dauden arauen ondorioz zalantzak kontuan hartzen baditugu.

Era berean, arau hau argitaratzeko premia ulertzen dugu, hori izan gabe ezin baitira beste batzuetan (besteak beste, ordezkatzeko duen 327/2003 Dekretuan) dauden prestakuntza-programak abian jarri, 30/2015 Legearen arau berrietara moldatu behar direlako.

Gainera, Dekretuaren egite-prozesuari buruzko dinamika balioztatzen da, nahasitako eragileekin harremana bizia eta planteatu diren iradokizun nahiz ekarpen desberdinekiko irekia izan baita (zenbait desadostasun agertzetik urrunago).

Horrez gain, arauaren eduki materialei dagokienez, gure produkzio-sarearen behar zehatzei erantzunak ematera bideratutako ekintzak planteatzea bereziki interesgarria da. Ildo horri jarraiki, heziketen espezialitatei buruzko euskal katalogoaren inguruko guztia azpimarra daiteke. Bertan Euskal Autonomia Erkidegoko heziketa-espezialitate bereziak jaso beharko dira. Halaber, heziketa duala edo txandakatua ala nazioz gaindiko mugikortasunerako neurriei esker, nazioartean sartzeko prozesuan dauden enpresei laguntzea nabarmen daitezke.

Hala eta guztiz ere, arau berriari dagokionez, bi alderdirekin Batzorde hau kezkatu ageri da:

- 30/2015 Legeak enplegurako heziketari buruz jolas eremu berri bat zehazten du eta horretan heziketa zuzenean kudeatu eta irakastearekiko gizarte-eragileen protagonismoa txikiagoa da. Heziketa-eskaintzaren diseinuan, plangintzan, kontrolean, jarraipenean eta ebaluazioan, berriz, handiagoa da.
1995. urtean Euskadin Lanbide Heziketa Iraunkorrari buruzko Euskal Hitzarmena sinatu zen eta, harrezkero, enpresa- eta sindikatu-erakundeek, Gobernuarekin batera, Hobetuz erabiliz, enplegurako heziketaren sistema garatu dute, nagusiki, langile okupatuentzat. Horri esker, garapen profesional eta pertsonalerako prestakuntzaz hornitu dira, hori guztia berdintasunetik eta adostasunetik abiatuta. Sistema horrek funtzionatzen badu, 30/2015 Legearen agindua kontuan hartuta, arrazoizkoa litzateke funtzionamendu-araubide hori orain enpresek eta sindikatuak parte hartzen duten eremu horietan erabiltzea, hala nola LANBIDEn Administrazio Kontseiluan.
- Gainera, Euskadin ELH zuzendu behar duen organo bakoitzaren aginpide-eremua, ezta sortu nahi den koordinazio-sistema ere ez da argi gelditzen. Euskadin gaur egun goi mailagoko araua Legebiltzarrean izapidetzen ari da. Lanbide Heziketari buruzko Legez ari gara. Izan

ere, Sistemaren gobernamentuari buruzko sistemaren aginpide-esparru argia zehazten du. Legearen eta Dekretu proiektuaren edukia alderatzen badugu, zenbait kontraesan dago Lanbide Heziketaren azpisistema bakoitzean erabakitze-eremuari dagokionez: Legeak LHko Euskal Kontseiluaz hitz egiten du eta xedatutakoaren arabera, "*administrazioen eta enpresanahiz sindikatu-erakunde esangarrienen arteko partaidetza-organoa da lanbide heziketaren politikak orotara hartuta eztabaidatu, adostu eta erabakiak hartzeko... Lanbide Heziketako zentroek ordezkartza izango dute Kontseiluan ahoz, baina botorik gabe*"; Dekretuak, berriz, enplegurako heziketaren arloan Aholkularitza Batzordea aipatzen du enpresa- eta sindikatu-erakunde esangarriek Enplegurako Heziketaren Sistemari parte hartzeko organo bezala. Bestalde, Prestakuntza Iraunkorren Lanbideen Arteko Hitzarmena, indarrean dagoena, ez dugu ahaztu behar. Bertan xedatutakoaren arabera, Hobetuz da Euskadin pertsona langileen prestakuntzaren zuzendaritza-organoa eta, azkenik, LANBIDEn Administrazio Kontseilua eta bere Heziketa Batzordea daude. Laburbilduz, aipatutako aurrekariekin, gure ustez Dekretuak ELHaren sistema eraginkortasunez antolatzen ez du asmatzen eta hori da, hain zuzen ere, bere helburua.

II. Sistemaren gobernamentua

Dekretu-proiektuaren II. kapituluak (8tik 10. artikulura) ELHaren sistemari dagokion gobernamentuarekin zerikusia duten gaiak arautzen ditu: plangintza, kudeaketa eta partaidetzarako organoak.

Plangintza eta ebaluazioari dagokionez, **8. artikulua** xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde desberdinetan lanbide heziketaren arloan politikak koordinatze arduratzen den "organoak" ELH planifikatu eta ebaluatzeko erantzukizuna izango du.

Gure iritziz, Lanbide Heziketaren Koordinazio Organo Gorenaz Legebiltzarrean izapidetzen ari den Lanbide Heziketari buruzko Lege Proiektuak 18. artikuluan xedatutako baldintzetan hitz egiten bada, berariaz aipatu beharko litzateke eta lanbide heziketaren sistema ebaluatzeko, funtzioa Lanbide Heziketaren Euskal Kontseiluari dagokio, Legearen proiektuak 19.4. artikuluan zehaztutakoaren babesean.

Era berean, **10. artikulua** ELHaren Aholkularitza Batzordea sortzen du. Enpresa- eta sindikatu-erakunde esangarriek osatzen dute, beren ordezkartzaaren proportzioari jarraiki eta LANBIDEn aholkuak ematen dizkiote, Enplegurako Lanbide Heziketaren beharrak hauteman, planifikatu, programatu, hedatu eta ebaluatzeko orduan laguntza eskaintzeko.

10.3. artikulua Batzordeari ematen dizkion funtzio asko eta izaera justifikatzen dutenak, jada Hobetuz bezalako organoak edo LANBIDEn Administrazio Kontseiluak betetzen dituzte. Hala, xede ala justifikazioari buruzko zalantzak sortzen dira.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

Zioen azalpena

- **1. orrialdea:**

Lehenengo paragrafoaren ondoren, beste bat eranstea eta hurrengoa aipatzea iradoki da:

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan enplegurako heziketak ibilbide luze eta nabarmena du. Lanbideen Arteko Hitzarmena, gizarte-elkarrizketaren esparruan 1996. urtean sindikatu eta enpresa-erakunde esangarriek nahiz Eusko Jaurlaritzak sinatutakoa, eta Enpleguan Prestakuntzarako Euskal Fundazioa (Hobetuz) eratu zuena, Euskadin bizian zehar prestatu eta ikas dadin nahiz pertsonak birzikla daitezten sistema egonkorra finkatzeko oinarritzko faktorea izan da. Kudeaketan sistema gardena eta eraginkorra eta eragile nagusien (langileak eta enpresaburuak) partaidetza nahiz inplikazioarekin bermatzen dena.

- **1. orrialdea:**

Hirugarren paragrafoan EBren eremua aipatu ondoren, berariaz EGAEBk (Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Europar Batzordea) 2010eko abenduaren 1ean Batzorde Betearazleak onartutako ebazpenean azaldutakoa berariaz erantsi beharko litzateke: *“Bizian zehar inbertsio gehiago hezkuntzan eta prestakuntzan kalitatezko enpleguak lortzeko”*, honako baldintzetan:

“Lehia orokorrak, demografia-aldaketek, aurrerapen teknologikoen eta banaka nahiz taldean enpleguaren joeretan aldaketek lan-merkatuetan eta ezagutza, abilezia eta gaitasun beharretan inpaktu esangarria dute”.

- **3. orrialdea, 5. paragrafoa:**

3. orrialdeko 5. paragrafoak hala dio: *“eredu honek sistema bakarrean integratzen du gure lurraldean garatzen den enplegurako lanbide heziketako jardueren multzoa”*. Lehen zenbait sistema zeudela aurreuposatzen du, baina horiei buruz ez da ezer azaltzen.

Bestalde, ondoren eredu berriaren helburua adierazten da: *“persona langileei, okupatu eta langabetuei, lan-merkatuaren beharrei moldatutako prestakuntza eskaintzea, enpresen lehiakortasunari buruzko eskeak kontuan hartuta. Era berean, prestakuntzak pertsonen sustapen profesionalaren eta garapen pertsonalaren nahiak ase beharko ditu”*.

Gure ustez, prestakuntza honek, egiaz, sustapen profesionalaren eta garapen pertsonalaren nahiak asetzeko aukerak lortzen direla bermatu behar du, beraz, aurreko idazkera zehaztu beharko litzateke.

2. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren kontzeptua, helburuak eta printzipioak

Lehenik eta behin, ELHaren helburuen artean **bigarren atalean** ondorengo aipatzen da: *“b) Langileei lan-merkatuan eskatutako gaitasun profesionalakiko eta enpresen beharrekiko ezagutza eta praktika egokiak eskuratzea, gizonen eta emakumeen artean aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza ziurtatuz”*.

Gure ustez azpimarratutakoaren ordean honako adierazpena erabili beharko litzateke: *“berdintasunaren baldintzetan aukerak lortzen direla ziurtatuz”*, konpromisoa handiagoa izateagatik eta ez hain erretorikoa.

Bestetik, bigarren atal honetan aipatzen den azkeneko helburuaren idazkera hurrengo moduan osatzea gomendatzen da:

“g) Bizian zehar ikastea errazten duten erabaki pertsonalak hartzeko informazio eta orientabide profesionalaren prozesuak sustatzea”.

Artikulu honetako **hirugarren atalari** dagokionez, ELH arautzeko printzipioak zerrendatzen dira. Gure iritziz oso garrantzitsua da honakoak bateratzea: *“produkzio ereduaren eskeei eta aldaketei aurreratzea eta prestakuntza eskaintza Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuaren behar aldakorretara, baita enpresen behar berezietara ere azkar eta malgutasunez egokitzea”* (d azpiatala) eta *“plangintza estrategikoa ahalbidetzeko nahiz prestakuntza baliabideetan inbertsioa sustatzeko egonkortasuna, segurtasuna eta ziurtasuna”* (e azpiatala). Izan ere, bi elementu horiek funtsezkoak dira sisteman.

Azkenik, printzipioen zerrendatik i) azpiatalaren idazkera adierazitako moduan osatzea gomendatzen dugu:

“i) Bakoitza bere aginpideen eremuan, herri-administrazioen artean eta, bereziki, hezkuntza-sistemaren lanbide heziketaren arloan aginpidea duten sailen artean lankidetzan jardutea eta koordinatzea, enplegurako lanbide heziketa nahiz lan-esperientziaren bidez edo legezko bideak erabiliz gaitasun profesionalen egiaztapen prozesuak bultzatu eta zabaltzeko, baita prestakuntzaren berri emateko ere. Halaber, administrazioaren eta enplegurako heziketaren kudeaketan parte hartzen duten erakundeen eta, bereziki, enpresa eta sindikatu-erakunde esangarrienen arteko lankidetzak izango da”.

3. artikulua. Definizioak

Lehenik eta behin, **i) atalak** Heziketa Ibilbidea honako moduan definitzen du: *“prestakuntza-ekintzen multzo kateatua, prestakuntza profesionala osatu edo pertsona langileen (langabetuak eta okupatuak) enplegarritasuna hobetzea ahalbidetzen duena”*. “Multzoaren” ordez “prestakuntza-ekintzen prozesu kateatua” aipatzea egokiagoa delakoan gaude.

Bestalde, **k) atalean** Prestakuntza Planaren definizioa hurrengo moduan osatzea iradoki da:

“k) Prestakuntza plana: prestakuntza-ekintzen multzo koherente eta antolatua, denboraldi jakinean zehaztua eta alde zehatzetan zehaztu diren prestakuntza-helburuak lortzera bideratua”.

4. artikulua. Pertsona hartzaileak eta lehentasunezko taldeak

2. atalak hala xedatzen du: *“lan merkatuan sartu eta mantentzeko zailtasun handienak dituzten langileak prestakuntzara iristen direla berma dadin, lehentasunezko taldeak identifikatu ahal izango dira, prestakuntzaren ekimen desberdinetan parte hartzeko. Taldeak programak egituratzen, arautzen edo abian jartzen dituzten administrazio xedapen eta egintzetan zehaztuko dira, une bakoitzean enplegu politikari, enpleguaren estrategia europarrari eta Europako Gizarte Funtzaren programa operatiboari buruzko plangintza tresnetan zehazten diren aurreikuspenak kontuan hartuta”.*

Gure iritziz, puntu honetan Enplegurako Espainiako Estrategia aipatu beharko litzateke, Estrategia Europarraren esparruan xedatua, lehentasunen lege-zehaztapenak eta taldeak orienta eta baldintza ditzakeen neurrian.

5. artikulua. Prestakuntza-ekintzak

Lehenik eta behin, artikulu honetako **1. atalaren** idazkera hurrengo moduan osatzea gomendatzen da:

“1. Profesionaltasunaren ziurtagiriak lortzera bideratutako prestakuntza-ekintzek, gutxienez, araudian xedatutako iraupena izan behar dute. Ziurtagiri horien egiaztapen partzial metagarria errazteko eta pertsona langileen prestakuntza-ibilbideak ahalbidetzeko, une bakoitzean lan-egoera alde batera utzita, profesionaltasun-ziurtagirien prestakuntza-moduluetan edo, bidezkoa bada, langileen eta enpresen prestakuntza-beharrak asetzen dituzten prestakuntza unitateetan oinarritutako prestakuntza-ekintzei buruzko programazioa sustatuko da. Eusko Jaurlaritzak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez prestakuntza eskaintza anitza eta nahikoa egotea zainduko du. Helburua pertsonak arestian azaldutako prestakuntza-ibilbideak amaitzen dituztela ziurtatzea da”.

Lehenengoa gehitu da profesionaltasun-ziurtagiriak, estatuko errege dekretuek araututakoak, zaharkituak gelditu daitezke, beraz, langileen eta enpresen prestakuntza-beharrak asetzen dituzten ekintzak sustatzea proposatzen da, 5/2002 Lege Organikoak, ekainaren 19koak, Prestakuntza eta Lanbide Heziketari buruzkoak, xedatutakoaren ildotik.

Bigarrena gehitzea proposatzen da testua hobetzeko.

Bigarrenez, artikuluko honetako **3. atal**ak xedatutakoaren arabera, *“prestakuntza-ekintzak izango dira ikasgelaren testuingurutik kanpo egindako jarduerak, laneko egiazko inguruneetan ikaste-metodologia berriekin jarduerak garatzen badituzte; era berean, horien barruan sartuko dira lan-merkatuan eta gizartean sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeei begira, oinarrizko gaitasunak lortzeko prestakuntza arruntaren ekintzak...”*

Paragrafo horren idazkera nahasia da, irakurri ostean, itxuraz, ez baitira prestakuntza ekintzak “ikasgelaren testuinguruaren barruan egindako jarduerak”. Ildo horri jarraiki, edozein nahaste saihesteko, honako idazkera egokiagoa litzateke:

“3. Prestakuntza-ekintzak izango dira, ikasgelaren testuinguruaren barruan egindako jardueraz gain, ikasgelaren testuingurutik kanpo egindako jarduerak, laneko egiazko inguruneetan ikaste-metodologia berriekin jarduerak garatzen badituzte; era berean, horien barruan sartuko dira lan-merkatuan eta gizartean sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeei begira, oinarrizko gaitasunak lortzeko prestakuntza arruntaren ekintzak...”

6. artikulua. Prestakuntza irakasteko modalitateak

Gure ustez, artikuluko hau osatu gabe gelditzen da, teleprestakuntza definitzen baita, baina ez bertaratuta irakasteko modalitatea, beraz, **3. atala eranstea** iradoki dugu adierazten den idazkerarekin (orduan, 3. atala 4.a izatera pasako litzateke):

“3. Bertaratuta irakasteko modalitatea ikasgela fisiko edo birtualean, irakasleekin, gertatutakoa da. Irakasleek aldi berean ezagutzak transmititzen dizkiote ikasleen multzoari, erabiltzen dituen baliabide didaktikoak baztertuta. Modu sinkronizatuan dihardute”.

7. artikulua. Prestakuntza ekintzen finantzaketa eta modulu ekonomikoak

Artikulu honen **1. atalean** hala dio: *“enplegurako lanbide heziketa ekitaldi ekonomiko bakoitzean Euskadiko Aurrekontu Orokorren Legean horri bideratzen zaion aurrekontu-kredituarekin finantzatuko da”.*

Gure iritziz, dekretu honen zati diren ekimenak Gobernuko beste sail batzuetako aurrekontu-kredituekin finantzatu beharko lirateke eta ez bakarrik LANBIDERI dagokionarekin. Nolanahi ere, hori aipatu beharko litzateke.

Gainera, atal hau hurrengo moduan amaitzen da: *“era berean, enplegurako lanbide heziketa Gizarte Segurantzarekiko lanbide heziketaren kuotatik datozen funtsekin finantzatzen da”*.

Ildo horri eutsiz, hitzarmenak eta Enpleguaren Politika Aktiboak transferitzeko dekretuak berariaz xedatzen dutena ezagutzea komenigarria litzateke eta esaldia ondorengoa erantsiz osatu ere bai: *“Enpleguaren Politika Aktiboak transferitzeko akordioa onartzen duen dekretuan jasotako baldintzetan”*.

8. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren plangintza eta ebaluazioa

Artikulu honek xedatutakoarekin bat, *“Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakundeek lanbide heziketaren arloan garatu behar dituzten politikak koordinatzeko organoa izendatuko da eta berak zehaztuko ditu Enplegurako Lanbide Heziketaren plangintza eta ebaluazioari buruzko ildo orokorrak”*.

Gogoeta orokorretan adierazitako berriz azpimarratuz, aipatu organoa Lanbide Heziketaren Koordinazio Organo Gorena, Lanbide Heziketari buruzko Lege Proiektuak (egun Legebiltzarrak izapidetzen) 18. artikuluan araututakoa, bada, berariaz aipatu beharko litzateke eta, aldi berean, gogorarazten da lege-proiektuak Lanbide Heziketaren Euskal Kontseiluari esleitzen diola lanbide heziketaren sistema ebaluatzearen funtzioa.

11. artikulua. Heziketari buruzko Espezialitateen Euskal Katalogoa

Xedatutakoaren babesean, *“Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak Heziketa Espezialitateei buruzko Euskal Katalogoa kudeatzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoan irakatsi behar diren heziketa espezialitateak agertzen dira...”* Ondoren, heziketa espezialitateen banaketa adierazten da.

Gure iritziz, atal honen idazkera honako moduan argiagoa litzateke:

“Euskal Autonomia Erkidegoan irakatsi behar diren Heziketa Espezialitateak Heziketa Espezialitateei buruzko Euskal Katalogoan azalduko dira. LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen du katalogoa eta hurrengo moduan banatzen da:...”

12. artikulua. Profesionaltasunaren ziurtagiriak

Artikulu honen **1. eta 2. ataletan** honakoak gehitzea gomendatzen da, idazkera hobetzeko:

“1. Profesionaltasunaren ziurtagiriek ofizialki enplegurako lan jarduera esangarria garatzeko gaitasun profesionalak egiaztatzen dituzte. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-prozesuen bidez edo lan-esperientziarekin pertsona langileek lortutako gaitasun profesionalekin egiaztapen ofiziala eskuratzea sustatu behar du.

2. Eskaintako prestakuntza-ekimenetan, enpresek programatutako prestakuntzan, prestakuntza dualean eta programa berezietan egindako prestakuntza-ekintzen bitartez profesionaltasunaren ziurtagiriak edota meta daitezkeen ziurtapen partzialak lor daitezke. Gauza berdinerira iritsi ahal izango da ekimen pribatuaren bitartez eta lan esperientzian edo prestakuntzaren barruan formalak ez diren

bideetan lortutako gaitasun profesionalak egiaztatu eta ebaluatzeko prozeduren bidez, betiere profesionaltasunaren ziurtagiriak arautzeko xedatzen diren eskeak betetzen badira”.

13. artikulua. Prestakuntza irakastea

Xedatutakoaren arabera, EAEn enplegurako lanbide heziketa, besteak beste, honakoek irakatsi ahal izango dute: *“prestakuntza erakunde publiko eta pribatuek, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan enplegurako lanbide heziketa irakasteko egiaztatuak edota inskribatuak badaude. Erakunde horiek ezingo dituzte hirugarrenak azpikontratatu esleitzen zaien prestakuntza jarduera gauzatzeko. Xede horrez, prestakuntza irakasteko irakasleak kontratatzea ez da azpikontrataziotzat jotzen”* (a atala).

“Kontratazioa” terminoarekin zerikusia duten kontzeptuak mugatzeko arazoak daudenez, idazkera argiagoa izatea komenigarria litzateke, xehetasun horiek zehatzago arautzeko araudi aplikagarri orokorraren zain. Izan ere, garatzeke dago.

16. artikulua. Enplegurako lanbide heziketaren jarduerak planifikatzea

Artikulu honen **2. atalean** ondorengoa gehitzea gomendatzen da:

Gauzatzen diren prestakuntza jarduerak egindako plangintza izango dute oinarri. Hala eta guztiz ere, aurrez ikusiak ez dauden beharrak betetzera bideratutako jarduerak programa daitezke, are gehiago, lan-kontratazioaren konpromisoa badute, eta enpresetan, sektore ekonomikoetan eta pertsona langileengan sortzen badira edo araudi bat indarrean sartzearen ondorioz lanbide zehatzetan prestakuntza berezia beharrezkoa bada. Prestakuntza programa nagusien xedapen arautzaileek beharrezko ekintzak egiteko malgutasun nahikoa izan beharko dute, horiek antzeman eta planifikatu ez badira”.

21. artikulua. Enpresek programatutako heziketa

Enpresen heziketa Estatuko hobarien sistemak estaltzen du (artikuluaren **4. atala**), 30/2015 Legeak xedatutakoaren babesean, finantzaketa-bide bakarra. **5. atalak**, ordea, ate bat zabaltzen du eta modu osagarrian Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak beste finantzaketa-lerro bat ireki ahal izango du ekimen horietarako.

Batzorde honek bere zalantzak adierazten ditu 30/2015 Legearen artikulua hori kokatzeari buruz eta, nolana ere, 5. atalean aipatzen diren ekimen osagarri motak argitu beharko liratekeelakoan dago.

22. artikulua. Prestakuntzaren eskaintza

Artikulu honen **1. atalean** ondorengoa gehitzea gomendatzen da:

“1. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-eskaintzak langileei, okupatuei eta langabetuei, lan-merkatuaren behar eguneratuei doitu, prestakuntza-aukera eskuratzea du helburu. Horrez gain, enpresen produktibitate- eta lehiakortasun-eskeei nahiz sustapen profesional eta garapen pertsonalaren nahiei erantzungo die...”

23. artikulua. Langile langabetuentzat prestakuntza eskaintza

1. atalak hala dio: *“langile langabetuentzat prestakuntza eskaintzaren helburua banako eta produkzio-sistemaren prestakuntza-beharrei egokitutako prestakuntza eskaintzea da, lan-merkatuak eskatzen dituen gaitasunak lortu eta enplegarritasuna hobetzeko. Langile langabetuentzat prestakuntza ekintzen lehentasunezko helburua lan-merkatuan sartzeara izango da”.*

Prestakuntzaren “aukera” aipatzeari buruzko egokitasunean azpimarratzeaz gain, honakoa adierazi nahi dugu: “hain helburu orokorrak (lan-merkatuan sartzeara) iraupenaren arabera baliozkotasunari dagokionez zalantza asko planteatzen dituela. Halaber, dudak sortzen dira irakatsitako prestakuntzaren eta lanpostuaren arteko erlazio-mailan. Nolanahi ere, arau honen 3. artikulua, definizioei buruzkoak, “lan-merkatuan sartzeara” zer den kontuan hartzea komenigarria litzateke.

24. artikulua. Lanekoak ez diren praktikak.

24. artikulua langile langabetuentzat prestakuntza-eskaintza arautzen duen azpiatalean dagoenez, itxuraz, okupatuek halako praktikak egiteko ahalmenik ez dute, 25.5. artikulua babesean aukera hori azaltzen denean, jada langile okupatuei dagokien atalean.

Horregatik, dekretuak, orokorrean, “lanekoak ez diren praktikei” buruz artikulua bakarria izatea bidezkotzat jotzen dugu. Ez luke azpiatal baten edo bestearen arabera izan behar eta bi egoerak beren berezitasunekin, hala baleude, aurrez ikusi beharko litzuzke.

25. artikulua. Langile okupatuentzat prestakuntza-eskaintza

6. atalaren idazkera adierazitako moduan osatzea egokituz jotzen dugu:

“6. Dagozkion araubidezko garapenen bidez langile okupatuentzat prestakuntza-eskaintzaren norainokoa zehaztu ahal izango da eta planaren ezaugarriak, baita finantzatzeko baldintzak ere xedatuko dira, arloan erakunde eskudunak erabakia hartu ondoren”.

26. artikulua. Programa bereziak eta gizarteratu nahiz lan-merkatuan sartzeko proiektuak

26.1. artikulua gizartean eta lan-merkatuan sartzeko programa bereziek izan ditzaketen ezaugarriak zerrendatzen dira. Dena den, azpiatal bakoitzean “programa” hitza sartzeara nahastea dakar, ekimen desberdinez hitz egiten dela baitirudi, programa horien ezaugarriak direnean. Horregatik, lehenengo atal honetan idazkera berraztertzea eta a) azpiataletik g) azpiatalera “programa” hitza ezabatzea gomendatzen da.

Bestalde, gizartean eta lan-merkatuan sartzeko proiektuek lortu nahi dituzten helburuen artean, besteak beste, honakoa aipatzen da: *“18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, Diru Sarrerak Bermatu eta Gizarteratzeari buruzkoak, xedatutakoaren babesean, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemak arreta jasotzen duten pertsonen partaidetza bermatzea” (2e atala).*

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemak arreta eskaintako pertsonetako berraztertzeak buruzko aipamen esplizitua ez da ulertzen. Sistemak, guztira hartuta, esku hartzea behar duten talde guztiei arreta eskaini behar die eta Enpleguaren Heziketari buruzko Dekretua denez eta ez gizarteratzeari buruzkoa, Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan dauden pertsonak aipatzean enplegarritasun egoeran egotea adierazi beharko litzateke.

35. artikulua. Prestakuntza Erakundeei buruzko Euskal Sarearen definizioa eta helburuak

Artikulu honen **2. atalari** dagokionez, ez dugu uste “*finantzaketa sistema publikoaren bidez enplegurako lanbide heziketaren eremuan denboran prestakuntzaren plangintza eta programazio egonkorra eta iraunkorra nahiz doakoa izatea*” Prestakuntza Erakundeen Euskal Sarearen helburua denik.

Horregatik, **hautazko idazkera** proposatzen dugu, hain zuzen ere, Sarearen egiazko zereginari egokiagoa zaiona:

“2. Prestakuntza Erakundeen Euskal Sarearen helburua prestakuntza eskaintza osoa eskura jartzeko eta euskal langileen nahiz enpresen prestakuntza beharrak asetzeko gai den prestakuntzaren azpiegitura garatu eta mantentzea izango da.”

VII. kap. Enplegurako lanbide heziketa kudeatzeari lotutako prozesuak (37. artikulua eta hurrengoak)

Harrigarria da Dekretu honetan guztian eta, zehazki, Kapitulu honetan modalitate desberdinetan prestakuntza eskaintzaren urteko programazioa egin eta garatzeari buruzko aipamenik ez agertzea.

Gizarte eragileen eta bestelako nahasitakoen “partaidetzari”, denboran hutsik ez duen programazioari, eskaintza modalitate batzuetan eta besteetan, prestakuntza-espezialitateetan, jarduera-sektoreetan eta pertsona-taldeetan baliabide ekonomikoak aplikatzeari... buruz aldarrikatzen diren asmo on guztiek programazioaren urteko zehaztapenetik abiatu behar dute. Hala eta guztiz ere, kapitulua abiarazteko “ikastea ebaluatzea” erabiltzen da (37. artikulua).

Formari buruzko gogoetak

1. Zioen azalpeneko bigarren paragrafoan (**1. or.**) honakoa aipatzen da: “*...Ekintza horiek lanbide zehatza garatzeko beharrezkoak diren gaitasun profesionalez hornitzen dute. Ildo horri eutsiz, arlo profesional zehatza ezagutzen eta sektore nahiz jarduera ekonomiko multzoari aplikatzen zaizkien zeharkako gaitasunak lortzen eragiten dute*”. Esaldi hori berraztertzea gomendatzen da, gaztelaniaz “tanto” hitza soberan baitago edo “como” falta baita.
2. Dekretu-proiektuaren **10., 13. eta 32. orrialdeetan “en base a”** adierazpena erabiltzen da. EEAKo zalantzei buruzko hiztegi panespaniarraren arabera, “*gaitzesgarria da “en base a” zentzu baliokidea duen esamoldea, “en” eta “a” preposizioak ez baitaude justifikatuak*”. Horregatik, orrialde horietan idazkera berraztertu beharko litzateke.
3. **6. orrialdean, 3.c) artikulua** Erakunde Ziurtatua hurrengo moduan definitzen du: “*profesionaltasunaren ziurtagiria lortzera bideratua ez dagoen prestakuntza irakasten duten erakundeak, espezialitatearen heziketa programan eta enplegurako heziketa erakundeen euskal erregistroari buruzko araudian zehaztutako baldintzak betetzen badituzte*”. Aurkeztutako definizioa ikusirik, “Erakunde Ziurtatuak”, pluralean, erabili beharko litzateke. Bestalde, ELHaren eremuan kontzeptuaren berezitasuna kontuan hartuta, “Profesionaltasunaren Ziurtagiria” betiere letra larriz aipatu beharko litzatekeelakoan gaude, beraz, bidezkoa da dekretu-proiektu guztia berraztertzea.

V.- ONDORIOAK

Euskadiko EGABren iritziz, *“Euskadin Enplegurako Lanbide Heziketa antolatzen duen Dekretu Proiektua”* izapidetzea egokia da, kontsulta organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2016ko apirilaren 22an

Batzordeburuaren O. E.

Francisco José Huidobro Burgos

Idazkari nagusia

Emilia Málaga Pérez